

Etorkizuneko Beasain herritarrekin eraikitzen

Beasaingo Udalak **H**iria **A**ntolatzeko **P**lan **O**rokorra (H.A.P.O.) idazteko prozesua abian jarri du, eta herritarrekin batera osatu nahi du Beasain hurrengo urteetan nola garatuko den marraztuko duen dokumentua.

ZER DA?

Gaur egun indarrean dauden Arau Subsidiarioak ordezkatzeko dituen hirigintza plan bat da eta Beasaingo garapena diseinatzeko helburua izango du.

ZERTARAKO DA?

Beasaingo udalerri osoan dagoen lurzoruari erabilpena, haren balizko eraldaketa eta eraikuntza, nahiz eraikin eta instalazioen erabilera, kontserbazioa eta birgaitzea arautzeko izango da.

ZERGATIK PARTE HARTU?

Beasaindarren iritzia berebiziko garrantzia du. Inork ez luke kanpoan geratu behar Plan Orokorren egikaritze prozesuan, eta ongi etorriak izango dira edonolako ideiak eta ekarpenak. Erabaki hauek hartuko dira besteak beste, trenbidearen zabalgunearekin zer egin, edota ekipamenduak, etxe berriak, parkeak, lantegiak eta abar non jarri.